

ALKATEAREN PROBIDENTZIA

2025eko uztailaren 15eko, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko zuzendari nagusiaren EBAZPEN bidez argitara eman zen enplegua sustatzeko toki-ekintzetarako 2025eko dirulaguntzen deialdia (EHAA, 2025eko uztailaren 31, osteguna, 144. zk.)

Oñatiko Udalak 4 lan-kontratu egingo ditu dirulaguntza deialdi honen bitartez:

- 2 kale garbitzaile, 4 hilabetetarako, %100 jardunaldian.
- Administrari laguntzaile bat, 6 hilabeterako, %60ko jardunaldian.
- Administrari bat, 6 hilabeterako, %60ko jardunaldian.

ADMINISTRARI LAGUNTZAILE lanposturako jarraian zehazten diren **ezinbesteko baldintzak** zehaztu dira:

- Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza edo horren baliokidea izatea.
- Euskara: B2 maila edo baliokidea
- 2025eko uztailaren 31ko EHAA argitaratutako "Enplegua sustatzeko toki-ekintzaterako 2025eko dirulaguntza deialdia-ren" 2. artikuluko 4.1. puntuan (1. Mota.- Enplegua sustatzea) zehazten diren baldintzak betetzea.

Baloratu beharreko baldintzei dagokienez honako hauek izango dira:

- Administrazio publikoan, lanpostuarekin edo eginkizunekin harreman zuzena duten lanetan lan-esperientzia izatea.
- Eremu pribatuan, lanpostuarekin edo eginkizunekin harreman zuzena duten lanetan lan-esperientzia izatea.
- Lanposturako eskatzen dena baino goragoko prestakuntza akademikoko maila batean dagokion titulua izatea, betiere lanpostuarekin lotutakoak bada.
- Lanpostuarekin lotutako prestakuntza ikastaroak.
- IT txartelak (Word eta Excel edo horien baliokideak).

Hori guztia kontuan izanda, honakoa xedatzen dut:

1.- Lanbide - Euskal Enplegu Zerbitzuari eskatzea lan-kategoria eta baldintzak betetzen dituen hautagaiak aukeratzen.

2.- Honako profil hau eskatzen da: **Gazteria eta Hezkuntza sailetara atxikitua..**

- Lan kontratu mota: Enplegu-politika aktiboko programei loturiko kontratua.

3.- Hautagaiak hautatzeko, **balorazio-irizpide** hauek hartuko dira kontuan:

3.1 Prestakuntza (gehienez 5 puntu).

- Lanpostuan eskatzen den titulazio ofizialaz gain maila goragoko titulu ofiziala izanez gero, betiere lanpostua betetzeko erabilgarriak badira (gehinez 4 puntu):
 - Erdi mailako lanbide heziketa: 1 puntu.
 - Goi mailako lanbide heziketa: 2 puntu.
 - Unibertsitate graduak, lizentziaturak eta unibertsitateetako berezko tituluak, masterrak edo graduondokoak: 2 puntu.

- IT Txartelak: Excel eta Word edo horien baliokideak diren ziurtagiriak (gehinez 1 puntu).
 - Oinarrizko maila: 0,25 puntu.
 - Maila aurreratua: 0,5 puntu.Programa bereko oinarrizko maila eta maila aurreratuko txartelak izanez gero, ez dira bi aldiz baloratuko, maila aurreratuko puntuazioa emango zaie.

3.2 Prestakuntza osagarria (gehinez 5 puntu).

- Lanpostua betetzeko erabilgarriak diren prestakuntza ikastaroak: 0,05 puntu ordu bakoitzeko. Azken 10 urtetan egindako ikastaroak hartuko dira kontuan.

3.3 Lan-esperientzia (gehinez 10 puntu):

- Administrazio publikoan, C2 azpitaldeko lanpostuetan: 0,2 puntu lan egindako hilabete bakoitzeko.
- Administrazio publikoan, C1 azpitaldeko lanpostuetan: 0,15 puntu lan egindako hilabete bakoitzeko.
- Sektore pribatuan administrari lanetan: 0,05 puntu lan egindako hilabete bakoitzeko.

Administrazio publikoan izandako lan esperientzia lan zerbitzuen ziurtagiriaren bitartez egiaztatu beharko da.

Sektore pribatuan izandako lan esperientzia, lan-bizitzari buruzko txostenaren eta lan kontratuaren bidez egiaztatu beharko da.

Puntuazioetan berdinketa ematen bada berdinketa hori hausteko honako irizpideak erabiliko dira.

1. Irizpidea: Gizonezkoa izatea.
2. Irizpidea: Adinez nagusia dena.
3. Irizpidea: Langabezian denbora gehien egon dena.
4. Irizpidea: Zozketa.

4. Epaimahaia honako kide hauek osatuko dute:

- Epaimahaiburua: Izaskun Querejeta. Antolakuntza eta giza baliabideen teknikaria.
- Idazkaria: Unai Kortabarria. Sozioekonomia saileko teknikaria.
- Epaimahaikideak:
 - Iñaki Akizu. Hezkuntza teknikaria.
 - Ion Lopez. Gazteria teknikaria.

Oñatin, 2025eko azaroaren 15ean.

Alkatea

Sin.: Izaro Elorza Arregui

Sinaduren laburpena / Resumen de firmas

Titulua / Título:	ALKATE PROBIDENTZIA Admin. laguntzailea_Enplegu sustatzeko toki ekintzeratarako d
-------------------	---